

## Zure datuak

BILBAO EKINTZAK egindako prozedura honen helburua da herritarrei beharrezko informazioa ematea datuen babesaren arloan ditzuten eskubideak baliatu ahal izan ditzaten.

**Zure datu pertsonalen gaineko eskubideak datuak babesteko Europako, estatuko eta autonomia-erkidegoko araudian aitortu dira.**

## Aplikatzekoa den araudia



**2016/679 (EB) Erregelamendua**, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa.

**3/2018 Lege Organikoa**, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.

**16/2023 Legea**, abenduaren 21koa, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzarena.

**7/2021 Lege Organikoa**, maiatzaren 26koa, arau-hauste penalak prebenitzeko, detektatzeko, ikertzeko eta epaitzeko eta zehapen penalak betearazteko tratatutako datu pertsonalak babesteari buruzkoa.

BILBAO EKINTZAn konpromisoa dugu zure datu pertsonalen pribatutasunarekin eta datuen tratamenduari aplikatu beharreko hainbat printzipioarekin, hala nola gardentasunarekin, leialtasunarekin, zilegitasunarekin, zehaztasunarekin, minimizazioarekin eta xedea eta kontserbatzeko epea mugatzearekin.

# Zer eskubide dituzte pertsonak beren datuei dagokienez?

---

## Eskuratzea

Tratatzen ari diren datuak zein diren eta zein baldintzatan tratatzen ari diren jakiteko eta datu horiek eskuratzeko eskubidea.



## Mugatzea

Datu pertsonalen tratamendua mugatzeko eskubidea, normalean beste eskubide batzuk egikaritzeagatik blokeatuta daudelako.

## Ezabatzea

Datu pertsonalak ezabatzeko eskubidea, legez ezarritako kasuetan.



## Erabaki automatizatuen xede ez izatea

Datuen tratamenduan soilik oinarritutako erabaki baten xede ez izateko eskubidea, profilak egitea barne, baldin eta erabaki horrek ondorio juridikoak eragiten badizkio pertsonari edo modu berean nabarmen eragiten badio.

## Zuzentzea

Datu pertsonal okerrak edo osatugabeak zuzentzeko eskubidea.



## Eramangarritasuna

Datu pertsonalak erabilera komuneko eta irakurketa mekanikoko formatu egituratuan jasotzeko eskubidea, beste arduradun bati bitarteko automatizatuen bidez transmititzeko.



## Aurka egitea

Datu pertsonalen tratamenduaren aurka egiteko eskubidea, tratamendua interes publikoa edo ahal publikoak baliatuz egiten denean.



## Nork eska ditzake eskubide horiek?



Edonork du datuen babesarekin lotutako edozein eskubide baliatzeko eskubidea, BILBAO EKINTZAK tratatzen dituen datuei dagokienez.

Horretarako, gure webgunean argitaratutako tratamendu-jardueren erregistroa kontsulta dezakezu.

## Eskaeran jaso beharreko elementuak

Eskubide horiek honela baliatu ahal izango dira:

1. Posta ziurtatu bidez BILBAO EKINTZAren posta-helbidera bidalita.

Eskaeran honako hau txertatu beharko da:

- a. Interesdunaren izen-abizenak.
- b. NANA edo nortasuna egiaztatzeko agiria.
- c. Ordezkaritza egiaztatzeko agiriak.
- d. Erantsitako dokumentazioa.
- e. Helbide elektronikoa edo posta-helbidea.
- f. Data eta sinadura.



## Jardunaren ezaugarriak

Doakoa da. Eskaera argi eta garbi funsgabea edo gehiegizkoa denean bakarrik kobratu ahal izango da kanon bat.

Zuzenean edo legezko edo borondatezko ordezkari baten bidez egin daiteke. Ezgaituen edo adingabeen kasuan, legezko ordezkariak egin beharko du eta egoera hori egiaztatu beharko du.

Hilabeteko epean erantzungo da. Epea bi hilabetera luzatu ahal izango da, eskaeren konplexutasunaren edo kopuruaren arabera.

BILBAO EKINTZAK hilabeteko epean erantzungo dizu. Epe hori bi hilabetera luzatuz gero edo eskaera izapidetu ez bada, inguruabar horien berri emango dizute epe horrexetan.

## Erantzuteko

### modua



Erantzunak modu irakurgarri, argi eta errazean jaso beharko du eskatutako informazioa, formatu elektronikoa zein posta-helbidera bidalita.

BILBAO EKINTZAK osorik edo zati batean onetsi ahal izango du zure eskaera, eta, kasu horretan, eskubidea gauzatu. Halaber, eskaera ezetsi ahal izango du, eta erantzunean arrazoiak justifikatu.

## Eta gero, zer?

Interesdunak uste badu bere eskubideei ez zaiela behar bezala erantzun eta eskaera egin zuenetik hilabete baino gehiago igaro bada, kexa jar dezake Datuak Babesteko Euskal Agintaritzan.

Era berean, DBEAN kexa jarri aurretik, interesdunak kexa jarri ahal izango du BILBAO EKINTZAKo Datuak Babesteko ordezkariaren aurrean, helbide elektronikoa honen bidez: [datos@bilbao.eus](mailto:datos@bilbao.eus)



Kexa jarri ahal izateko, eskaeraren elementu berberak izan beharko ditu, eta, gainera, honako hauetako bat aurkeztu beharko da:

- Eskubidea baliatzeko eskaera aurkeztu izanaren kopia edo frogagiria.
- Tratamenduaren arduradunak eskatutako eskubidea gauzatzeari uko egitea.